

ARAUDIA

18/1998 Legea, ekainaren 25ekoa, droga-mendetasunen arloko prebentzioari, laguntzari eta gizarteratzeari buruzkoa

Erreferentziazko araua da Euskadin edari alkoholduen publizitateari, salmentari eta kontsumoari dagokionez.

Droga-mendetasunei aurrea hartzeari buruzko kapituluan, drogen kontsumoari aurrea hartzeko neurri orokorrak arautzen dira eta edari alkoholduen eta tabakoaren sustapena, publizitatea, salmenta eta kontsumoa kontrolatzeko neurri batzuk ezartzen ditu.

Legean ezartzen denaren arabera, botere publikoen eginkizuna da, bakoitzaren eskumenen barruan, honako helburu hauek dituzten programak eta jarduerak garatzea, sustatzea, laguntzea, koordinatzea eta kontrolatzea:

Biztanleria hezteko osasunerako ohiturak sortzeko. Hezkuntza-programa horietan arreta berezia jarriko da gazteengan.

Gizartean drogak agertzea, sustatzea eta saltzea desagerraraztea eta, bestela, mugatzea.

Edari alkoholduen sustapena, publizitatea, salmenta eta kontsumoa kontrolatzeko neurriei dagokienez, honako hauek biltzen dira, besteak beste:

- **Debekatuta dago bezeroak batez ere adingabeak dituzten establezimenduetan edari alkoholduen publizitatea egitea.**

- **Debekatuta dago adingabeei edari alkoholduak saltzea edo ematea. (20.1. artikulua)**

Ondorengo lekuetan ezin izango da alkoholdu edaririk saldu, ez eta eskueran jarri ere (20.3 artikulua)

- *Burutzen dituzten jarduerengatik eta eskaintzen dituzten zerbitzuengatik, batez ere 18 urtez beherakoentzat diren lokal eta zentroetan.*
- *18 urtera arteko ikasleentzako ikastetxeetan.*

- **Legezkoa da adin nagusikoei edari alkoholduak saltzea edo hornitzea, betiere legeriak eskatzen dituen baldintzak betetzen badira. Hala ere, honako kasu hauetan debekatuta dago alkohola adin nagusikoei saltzea eta hornitzea:**

- **Ondoren azalduko diren profesionalei**, jardunean ari diren bitartean (18/98 Legearen 20.1 artikulua): zerbitzu publikoko ibilgailuen gidariak, sanitarioak, 18 urtetik beherako ikasleak dituzten irakasleak, armadetako kideak, eta su-armak erabiltzen dituzten gainerako profesionalak, eta oro har, alkohola kontsumitzeak kontsumitu duenaren edo hirugarrenen bizitza edo osotasun fisikoa arriskuan jar lezaketen edo kalteren bat eragin lezaketen jarduerak betetzen dituztenak.

Gaur egun, Osasun Saila Adikzioei buruzko lege berri bat egiten ari da. Lege horren bitartez droga-menpekotasunen arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzko

18/1998 Legea eguneratu nahi da, gaurkotasun handiagoko gaiei eta arau-arloko esku-hartzeari buruz ikuspegi berria behar duten gaiei dagokienez, errealitate sozial berrien eta kontsumo-eredu berrien arabera; eta ildo horretan, adingabeek egiten duten alkoholaren gehiegizko erabilera landu nahi da, besteak beste.

Gainera, intereseko beste lege batzuk aipatu behar dira.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren 8/1997 Legeak, ekainaren 26koak, 2.artikuluan osasunaren erakunde-markoa zehazten du:

Euskal aginte publiko guztien lehentasunezko zeregina da, izan, jarduera sozio-ekonomikoko sektore bakoitzean osasuna sustatzea eta indartzea, bizitza-ohitura osasungarriari adore emateko, arrisku-faktoreak kentzeko, ondorio negatiboen intzidentzia ezabatzeko eta bere izaeragatik dagokion leku nagusiaren gainean sentsibilizatu eta kontzientziatzeko.

Eusko Jaurlaritzaren zeregina da Euskadin osasunaren instituzio-eremu hori jagotea, bai gomendioak bideratuz edo egokituz jotzen dituen neurriak hartuz, sektore-politika guztietan kontuan har daitezela zaintzeko, eta bai ekintza sanitario hutsen osagarri diren diziplina anitzeko ekintza positiboen diseinua emanez, biztanleriaren osasun-mailan etengabeko hobekuntza lortzeko.

7/1982 Legea, ekainaren 30ekoa, eskola osasunari buruzkoa

Eskola-osasuna sustatzeko tresna eraginkorra izan nahi du, betiere eskola-osasuna kontzeptu zabalenean ulertuta, non osasun-azterketez gain, alderdi psikopedagogikoak edo osasun-hezkuntza funtsezko zati diren.

2816/1982 Errege Dekretua, abuztuaren 27koa, ikuskizun publikoetarako eta jolas-jardueretako Poliziaren Erregelamendu Nagusia onartzen duena.

Dantzaleku, diskoteka, dantza-areto eta abarretarako berariazkoa

1. *Debekaturik dago hamasei urtez azpiko gazteak Kultura Ministerioak oro har edo bereziki hamasei urtetik gorakoentzat sailkatutako dantzaleku, diskoteka eta jendaurreko ikuskizun edo jolasetara sartu eta bertan egotea, bai eta gazte horien osasunari edo moralitateari erasan diezaieketen beste edozer leku edo establezimendu publikoetara sartu eta bertan egotea ere; eta hori, beste ministerio batzuen edo, hala dagokionean, autonomia-erkidegoen eskumeneko gaietan, arau bereziek ezar ditzaketen beste adin-muga batzuei kalterik egin gabe.*

2. *Aurreko ataleko debekuak bere baitan hartzen ez dituen establezimendu, ikuskizun edo jolasetara doazen **hamasei urtez azpiko gazteei ezin izango zaie inolako edari alkoholikorik eman, eta ez zaie halakorik edaten utzi ere egingo.***

3. Lehen paragrafoko establezimendu, ikuskizun edo jolasetako **nagusi edo arduradunek**, beren kabuz edota beren atezain edo langileen bitartez, establezimendu, ikuskizun edo jolas horietara **sartzea galarazi beharko diete hamasei urtez azpiko gazteei**, eta, barruan baldin badaude, bota egin beharko dituzte, behar izanez gero agintarien ardurapeko agenteen parte-hartzea eskatuz.

4. Aurreko paragrafoan adierazitako pertsonak, aipatutako establezimendu, ikuskizun edo jolasetara sartu diren edo sartu nahi duten **gazteen adinari buruzko zalantzarik badute, nortasun agiri nazionala aurkezteko eskatu beharko diete adina egiaztatzeko.**

5. Artikulu honetan adierazitako areto edo establezimenduetan, kanpoan –sarrerako ate eta leihatiletan, esaterako– zein barruan, ondo ikusteko moduko lekuetan ipini beharko dira «**debekaturik dago hamasei urtez azpikoak sartzea**» dioten **kartelak**. Debeku hori bera idatzirik agertu beharko da aipatutako establezimendu, ikuskizun edo jolasetako propagandako kartel, liburuxka, programa edo inprimakietan ere.

4/1995 Legea, azaroaren 10ekoa, ikuskizun publikoei eta jolas-jarduerei buruzkoa

Euskadin garatzen diren ikuskizun eta jolas-jarduera publikoak arautzen ditu. Lege horretan, arau-hauste larri gisa tipifikatzen da adingabeak onartzea edo adingabeek parte hartzea adingabeentzat debekatuta dauden lokaletan edo ikuskizunetan eta adingabeei edari alkoholdunak saltzea edo ematea; baita edari alkoholdunak kontsumitzeko baimena ematea ere esanbidez debekatuta dauden lokaletan edo instalazioetan.

Udal-ordenantzak

Era berean, hainbat tokiko arau daude, alkohol-kontsumotik eratorritako arazoak lantzen dituztenak.

Arautzen duten gaiaren arabera, hiru ordenantza-mota bereiz daitezke:

Edari alkoholdunen eta tabakoaren sustapena, publizitatea, salmenta eta kontsumoa elkarrekin arautzen duten ordenantzak:

Alkohol-kontsumoaren eta tabakoaren sustapena, publizitatea, salmenta eta kontsumoa kontrolatzeko neurriak arautzen dituen ordenantza, Laudio 2001.

Alkohol-kontsumoaren eta tabakoaren sustapena, publizitatea, salmenta eta kontsumoa kontrolatzeko neurriak arautzen dituen ordenantza. Arrigorriaga 2004

Bereziki edari alkoholdunen publizitatea, salmenta eta kontsumoa arautzen duten ordenantzak:

Alkoholismoaren prebentzioari buruzko ordenantza. Vitoria-Gasteiz - 1990.

Edari alkoholdunen kontsumo okerra arautzen duen ordenantza. Elgoibar 2004.

Alkoholaren publizitatea, salmenta eta kontsumoa arautzen duen ordenantza. Zarautz, 2004

Alkoholaren publizitatea, salmenta eta kontsumoa arautzen duen ordenantza. Portugalete 2010

Alkoholaren publizitatea, salmenta eta kontsumoa arautzen duen ordenantza, Barakaldoko udalerrikoa. Barakaldo 2010

Edariak jabari publikoko guneetan, orokorrean, kontsumitzea eragozteko ez ezik, gizabidearen kontrako beste portaera batzuk ere eragozteko helburu duten ordenantzak.

Bide publikoko zibismoari, bide publikoa erabiltzeari eta bide publikoko garbitasunari nahiz hiri-paisaiak babesteari buruzko ordenantza. Donostia 2004

Jabari publikoko guneetan eta eremuetan edari alkoholdunak kontsumitzea eta gizalegearen kontrako beste portaera batzuk eragozteko Udal Jarduna arautzen duen ordenantza. Galdakao 2009

Eremu Publikoko ordenantza. 2010 Bilbao.

Gainera zure interesekoa izango da, beharbada, zera jakitea:

- Ezin zaio alkoholismoari trukuen bidez engainatu. Alkoholemia zehatz neurtzen du eta ezin da inolaz ere gutxitu.
- 0.5 g/l-ko alkoholemiarekin istripua badugu, aseguru-konpainiek baliteke eragindako kalteen kargu ez egitea.
- Arau-hauslea adingabea bada, bere gurasoek izango dute isuna ordaintzeko ardura,